

# 1. BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa, behar zehatz batzuk dituzten bezeroei bideratuta dago, hori dela eta merkatu nitxo batean kokatzen gara. Gure bezeroek ezaugarri zehatz eta behar berezi batzuk dituzte eta maiz modu egoki batean asetu gabe egoten dira, beraz negozio-aukera paregabea ikusi dugu bertan, gizartean onura bat sortzen dugularik.

Hori dela eta enpresak daukan balioa kualitatiboa da, bezeroen ezaugarri eta beharrak kontutan izanik soluzio bat ematen diegu eta bizitza erraztu. Gure enpresak baditu elementu batzuk lehiakideengandik bereizi eta balio gehiagarria sortzen dituztenak bezeroentzako:

- Enpresa berritzaile bat gara, horrelako produkturik ez duelako inguruko enpresa batek ere ez eskaintzen. Gainera teknologia berriak erabiltzen ditugu, produktua aurrera ateratzeko eta ingurumenean izan dezakeen inpaktua gutxitzen saiatzen gara.
- Gure produktua erabiltzeko erraza da, edonork erabili dezake pausu simple batzuk jarraituz. Hori horrela izan dadin aurretiaz ondo programatu dugu.
- Bai produktua erabiliko dutenek zein bere inguruan beraiekin erlazioa daukaten pertsonak bizitza errazago eraman dezakete aurrera, lana errazten diegu, pertsona mutuak egindako zeinuaren esanahia momentuan adierazten duelako gure produktuak.
- Produktua denon eskura egongo da, gure enpresan erosteko aukera izango dute eta horretaz gain, aliantzak ditugun beste enpresa batzuetan ere bai; hau da, gure produktua hainbat tokitan eskuragarri egongo da (adibidez, denda ofizialetik 3 ordotara gertuen dagoen denda bat dago. Honetaz gain, beste hainbat lekutan ere aurkitu daiteke. Beraz, enpresa bezala eskuragarritasuna bermatzen dugu.
- Produktuak bi urteko garantia izango du, eta bezeroen nahiak ez baditu betetzen, bueltatzeko aukera izango dute (betiere, ondo zainduta baldin badago). Produktuak, funtzionamendu eskasa badauka eta ondo erabilita apurto egin bada bi urte horien barruan, beste bat emango zaie. Modu honetan, bezeroei arriskua murrizten diegu, egingo duten inbertsio hori kalitatezkoa dela ziurtatuz.

Produktuari dagokionez hauek izango dira bere ezaugarriak: Produktuaren tamaina pertsona bakoitzaren arabera egokitzen da, hau da, ez du tamaina zehatzik. Materialari dagokionez, zeinu hizkuntza itzultzen duen makina bat izango du, baita kaxa baten barnean makinaren kargadorea ere. Bestalde izan dezake: pultsera aldakorra, eta mando bat (hizkuntza, bolumena, ahotsa erregulatzeko). Erabilera egokia izateko irakasten ditugun kurtsoak eskaini, produktuaren garantia, produktuak probatzeko aukera denbora jakin bat izatea... ere edukiko dugu.